

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

HACIENDA Y POLÍTICA FINANCIERA

PRESIDENCIA, FUNCIÓN PÚBLICA, INTERIOR Y JUSTICIA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

RELACIONES CIUDADANAS E INSTITUCIONALES

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

CULTURA, DEPORTE Y JUVENTUD

POLÍTICAS SOCIALES

DERECHOS SOCIALES

FOMENTO

DESARROLLO ECONÓMICO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

DESARROLLO RURAL, ADMINISTRACIÓN LOCAL, Y MEDIO AMBIENTE

Nafarroako Gobernuak ordainsari osagarria kendu du bertako kide eta goi-karguentzat

Hala, urtean 260.000 euro inguru aurreztuko dira

Viernes, 31 de julio de 2015

Nafarroako Gobernuak gaur, ostiraleko bilkuran, Gobernuo kideek eta Administrazio goi-karguek orain arte jasotzen zuten ordainsari osagarriari uko egitea onartu du; ordainsari hori sozietate publikoetako kontseiluetan izateagatik jasotzen zuten, konpentsazio modura.



Nafarroako Jauregiko fatxada

Ordainsari osagarri hori 2012. urtetik eta legealdia amaitu arte, 39 goi-karguk jaso dute, 898.850,31 euro, guztira.

Zehazki, gaurko erabakiaren bidez, % 25eko soldata-igoerak kenduko dira Gobernuo Lehendakaritzan, % 20 Lehendakaritzaordetzetan, eta % 15 kontseilari, zuzendari nagusi, zuzendari-kudeatzaile edo kontseilarien gabineteko kideen kasuan.

Berriazko uko-egitea

Foru Gobernuaren kasuan, ordainsari osagarria abenduaren 28ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren 19/2011 Foru Legean ezarri zen 2012rako, eta 2015era luzatu zen. Osagarria berehala ken dadin, aurrekontu-legea aldatzeko parlamentuko izapide baten zain egon gabe, Foru Gobernuak erabaki du Gobernuo kideek osagarria jasotzeari berriaz eta banaka uko egingo diotela. Eskubideen uko-egite hori Nafarroako Eskubide Zibilaren Bildumak nahiz Kode Zibilak legez babesten dute.

Gainera, Gobernuak Foru Gobernuak 2012ko urtarrilaren 25ean hartutako erabakia ondorioz gabe uztea onartu du; erabaki horretan, goi-karguentzako osagarri hori ezartzen zen.

Neurria Nafarroako Gobernuaren osatzeko Programaren Akordioaren 23. puntua aplikatuz hartu da, Geroa Bai, EH-Bildu, Podemos eta IU-IE alderdi politikoek izenpetutakoa.

Ordainsari osagarria legealdian zehar

Iragan legealdian, berriazko osagarria Foru Gobernuo bederatzi kideek eta 30 goi-karguk jaso dute. Azken horietatik, 22 zuzendari nagusiak ziren, hiru zuzendari-kudeatzaileak, hiru gabineteburuak eta bi

Lehendakariaren bi aholkulari.

Guztira, kontzeptu horretan 898.850,31 euro xahutu dira. Urtero, ondorengo zenbatekoak gastatu dira: 249.215,95 euro 2012an, 265.063,42 euro 2013an, 257.477,49 2014an eta 127.093,45 euro ostiral honetara arte.